



Margoari emana

Anton Urreisti

2 logelako etxebizitzak 140.000 €-tik hasita

4. PISUA
2 logela - 2 bainu
Hornitutako sukaldia
140.000 €

BEHE SOL
Txokoa
Garajea
200.000 €

AZKEN ATIKOA
4 logela - 3 bainu
2 Terraza handi
250.000 €

4. PISUA
3 logela - 88 m²
Terraza 11 m²
205.000 €

BEHE SOL
Terraza 180 m²
Garaje ibxi bikoitza
230.000 €

etxegain
BIZIGUNEA

elgoibar

ARGITU ZURE IKUSPEGIA
ETA ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

- 2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA
- IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN TERRAZAK
- TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK GARAJEA SARRERAREKIN
- GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

WWW.ETXEGAIN.COM

grupo eibar
inmobiliario

E: comercial@grupoeibar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

943 31 66 11
689 66 08 01

OTRA FINANZIARIATZA PER
bankoa Groupe Crédit Agricole

ELGOIBAR 2019 AZAROA

2019/11/30ERA ARTE BALIO DU

2019

25€
EROSKETA BONUA

TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIAK

50€

CADUCA EL 30/11/2019

2019

25€
EROSKETA BONUA

TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIAK

50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2019/11/04tik 2019/11/30era arte.
- Elgoibarren errolatuta daudeneztat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan behar da) edo errolatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.

Bonuak azaroaren **4tik 30**era erosi ahal izango dira.
(agortu arte)

Salmenta:
Kalebarren Plazan

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
17:00-19:00

TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIAK

ELGOIBAR
URRUGA 1

IBON SERRANO LASA

Ingeniaria



// Berrikuntzari" oro har ona dela deritzot; halere, susmoa daukat ekimen batzuk ez ote diren kezko gortina eta entretenimendu bihurtzen gure botere egiturak eta Taifaseko erresumatxoak iraunarazteko.

Hezkuntzari dagokionez, "berrikuntza" hiru arlo nagusitan egituratzen dela esango nuke.

- Proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza (PBL metodologia).
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT).
- Hizkuntzak.

Trinitate santu honen fededun, harrigarriro bat eginik, bai *Terolismoaren* oinordekoak eta bai *Porrotxismoarenak* daude; honek jakingura berezia sortu eta zenbait ikerketa xume egin ditut. Gaurkoan PBLaz arituko naiz, hurrengo ekarpenotan beste bietaz.

PBLa, XIX. mendeko ikasketa metodologia omen da, ez horren berritzailea beraz. Ikasleak, ezagutza, ohiko eskola magistralen bitartez jaso ordez, taldekako proiektu interdisziplinaren bidez ahalduzten dira. Irakaslea, berriz, jakintsu nagusi izatetik erreztaile izatera igarotzen da.

PBLaz ahalmen desberdinak enarazi eta landu omen daitezke, ez soilik adimen intelektuala edo azterketa gaintitze estrategia soilak. Gainera, lan mundurako egokiago omen da,

"Berrikuntza' Hezkuntzan I"

erronkei taldeka aurre egin, informazioaren iturri anitzak erabili, malgutasunez eta multidiziplinitatez jokatu... halakoak bultzatzen dira.

Edozelan, lilura honek ez du bat egiten bere benetako hedapenez. Izan ere, prestigiozko ikastetxe gehienek ohiko metodoez dira.

Antolamendu pakidermikoak ote hauek? Ala PBLaren bidegarritasunari buruzko zalantzak ote?

Jakin minaz piperturik, azterketa pedagogiko interesgarriez egin dut topo, eta, harrigarria badirudi ere, metodo honek ez omen dakar diferentzia azpimarragarririk ikaslegoaren prestakuntzan.

Hauek omen baitira ahulgune batzuk:

- Talde lanaren itzalean arduen lausotzea.
- Diziplina eta kontzentrazio gaitasun pertsonalen lantze eta sakontze urriagoa.

- Ondo egin nahi bada, ikasgela txikien beharra eta irakasleen lan, funtzio eta koordinazio maila biderkatu beharra.

- Guraso gehienek eskaintzen dioten garrantzi mugatua ikastetxe aukeraketan.

Hau ikusita, benetan merezi al du PBLak suposatzen duen gainesfortzua? Ez al dago egun gurean beste arazo garrantzitsuagorik hezkuntzan?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olazola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ SALLOBENTE ERREKA

Markel Olano diputatu nagusiari eta Jose Ignacio Asensio obra hidraulikoetako diputatuari, zuei bioi galdetzen dizuet: Zer triskantza egin diozue Sallobente errekarari Garagartzako zubiaren inguruan? Hori al da ingurumena eta ekosistema naturala errespetatzea? Ez duzue lotsarik. Benetan haserre diotsuet, joan zaitetzte kakatar!

Justo Arriola

▶ HERRI ESKOLAKO JAIA

Urriaren 19an ospatu genuen Herri Eskolako jaiak, beti bezala eskola ireki genuen eta herri guztiari zabaldu genizkion ateak. Eskolan erabiltzen dugun metodologia aktiboa, gurasoen parte-hartzea, haurren mugimendu askea eta espazio ezberdinak erakutsi nahi ditugulako; baina batez ere, eskola osatzen dugun komunitate osoaren festa eta giro ona ospatu nahi izaten dugulako. Harro gaude eskolako familia guztietaz, boluntario bezala lanera etorri ziren guztietaz, harro gaude eskolako proiektu guztiak begi bistan jarri zenituzten irakasle guztietaz, harro hurrek sortu zuten festa giroaz, harro gure eskolaz, harro eskola pu-

blikoaz!. Haurren interesetatik eta eskubi-deetatik abiatuz, gure inguruan ditugun desorekak orekatu nahian eta gaur egungo zein etorkizuneko jendartea euskalduntzen jarraituko dugu lanean. Eskerrik beroenak bertaratu zineten boluntario guztiei, Saha-tzu harategiari, Muruari, Txillarre dendari, Doña Mercedesi...

Kalamuako Guraso Elkarteak

▶ PRESO GAIXOAK ETXERA!

Urriaren 29an Jose Angel Otxoa de Eribe preso ohi arabarra hil zen, espetxetik irten eta hiru hilabetera. Jose Angel duela 19 urte espetxeratu zuten, 2000. urtean. 2015. urtean minbizia diagnostikatu zioten. Bere zigorraren 3/4ak beteak zituela (2016. urtean) jakitun izanda ere, eta larri gaixo egonda ere, Jose Angel espetxean mantentzea erabaki zuten, bere egoerak guztiz okerrera egin eta atzera bueltarik gabea bilakatu artean. Uztailean baldintzapeko askatasunean utzi zuten eta handik hiru hilabetera hil da. Berandu detektatu zioten gaitza, berandu hasi zuten tratamendua eta berandu, beranduegi, askatu zuten. Espetxe politikaren ohiko lege-

diaren arabera, Jose Angelek gaitza etxean, baldintza duinetan, aukera guztiekin eta bere senide eta konfiantzazko medikuen babesarekin artatzeko eskubidea zuen. Baina Espainiako Gobernuak PPK erabiltzen zuen zirkular bera erabiltzen jarraitzen du ("soilik heriotza atarian dagoen askatuko da preso"). Aurten hil den hirugarren preso gaixoa da: Oier Gomez eta Juan Mari Maizkurrena izan dira aurten hil diren beste biak. Badira oraindik beste 21 preso gaixo larri Espainiako eta Frantziako espetxeetan jarraitzen dutenak, eta batzuen egoera dramatikoak da. Tartean Joseba Erostegi Bidaguren, Antzuolako bizilaguna dago, 22 urte preso daramatzana. Gizarte osasuntsu batek ezin ditu onartu horrelako egoerak. Mendekuan eta gorrotoan sustatutako politika honek bukatu egin behar du. Eta guri, herritarroi, dagokigu jarrera hartu eta gure desadostasuna adieraztea. Ostiral honetan, hilaren 8an, elkarretaratzea egingo dugu King Kong eraikinaren azpian heriotza hau salatu eta espetxe politikaren aldaketa eskatzeko. Han ikusiko dugu elkar!

Sare Elgoibar



Maria Trinidad Larrañaga Arregi

2019ko azaroaren 2an hil zen, 67 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak



Anbulatorio aurreko igogailua konpontzen ari dira eta pare bat astez itxita egongo da

Bernardo Ezenarro kaleko igogailua sarritan matxuratu da azken hilabeteetan, eta arazo horiek behin betiko konpontzeko obrak hasi dituzte. Thyssen Krupp enpresa arduratuko da igogailuaren kabina eta estribua aldatzeko lanetaz. Urriaren 28an hasi zituzten obrak, eta arduradunek aurreratu dutenez, bi edo hiru astetan amaituko dituzte. Obrak iraun bitartean beheko espaloien zati bat hesituta egongo da, baina oinezkoek pasatzeko aukera izango dute, trafikoari eragin gabe. Goiko aldea ere hesituta egongo da. Honez gain, informazio kartel batzuk ere ezarri dituzte, zerbitzuaren behin behineko itxieraren berri emateko.



Anbulatorioaren parean kokatuta dagoen igogailu publiko honek erabilera handia du. Udaletik emandako datuen arabera, egunero, 1.000 bidaia egiten ditu batez beste. Udalak jakinarazi du, bestalde, igogailu honek bandalismo erasoak ere jasan dituela, azkena, San Bartolome jaietan. Horregatik, Udalak igogailuaren erabilera egokia egiteko eskatu die herritarrei. Mantenua Udalaren ardura izan arren, erabilera egokia erabiltzaile guztion ardura dela gaineratu dute.

Zuberoako ikastolen aldeko saskien salmenta

Zuberoako ikastolei laguntzeko hango produktuez osatutako saskiak salduko ditu aurten ere Elgoibarko Izarrak. Bi saski egongo dira aukeran: Irati, 52 eurokoa, eta Ahüzki, 40 eurokoa. Eskaerak egiteko azken eguna azaroaren 27a izango da. Interesatuak e-postaz edo telefonoz egin ditzakete eskaerak: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626

Ikastolako DBH4ko ikasleen errifako zenbaki sarituak

Ikastolako DBH4ko ikasleek errifak saldu zituzten Kintaden Egunean, ikasbidairako dirua lortzeko. Lehenengo saria Sigma Jatetxean bi lagunentzako afaria izango da, eta bigarrena, Txomin Harategiko otarra. Hauek dira zenbaki irabazleak: 1. saria; 352 (ordezkoa, 813), eta 2. saria 625 (ordezkoa, 925). Irabazleek Ikastolara deitu behar dute (943 744 441) 15 eguneko epean, bestela saria ordezkoarentzat izango da.

Karakate argiztatu dute Kataluniari elkartasuna erakusteko

Gure Eskuk deituta Euskal Herriko herrietako mendiak, hondartzak, portuak eta beste hainbat toki ezagun argitzen jardun dute herritarrek, Kataluniari elkartasuna adierazteko. Elgoibarrera ere iritsi zen deia, urriaren 25erako. Elgoibarko talde batek egin zuen deia, eta Soralezeko, Mendaroko eta Eibarko lagunak ere batu ziren Karakate gaina argiztatzeko deialdira. Urriaren 25ean egin zuten ekimena, eta 300 bat lagunek hartu zuten parte. *Argi dugu bidea, erabakitze eskubidea* leloarekin argi ilara osatu zuten Karakate gainean, frontal, lumigas eta beste-lako objektu argitsuak erabilita. Karakaten egin zuten moduan, Txindoki, Debako hondartza, Gaztelugatxe, Mutrikuko portua eta beste hainbat toki ere argiztatu dituzte.



Elgoibar (Euskal Herria)
ESTEM AMB VOSALTRES!
#PiztuKarakate

Arg.: Argazki Soarte

2020rako ordenantza fiskalak %0,6 igoko ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak 2020rako ordenantza fiskalen gaineko tasak onartu ditu EAJren, PSE-EEren eta Elkarrekin Podemosen aldeko boztoekin, eta, oro har, ordenantza fiskalak %0,6 igotzea adostu du Udal Gobernuak, abuztuko KPI aintzat hartuta. Baina aurten ere salbuespen batzuk izango dira, tartean, zaborraren gaineko tasa, %3,4 igoko dena. Kasu honetan, Debabarreneko Mankomunitateak zerbitzua emateagatik Udalari aplikatu dion igoera bera ezarriko zaie herritarrei. Udal Kirol Patronatuko tasei dagokionez, kontzeptu batzuetan irizpide orokorrari jarraitzea erabaki dute (%0,6ko igoera), eta beste batzuetan igoerarik ez ezartzea. Hainbat motatako sarrikeriek, talde berezientzakoek eta aire libreko instalakuntzek, ez dute igoerarik izango. Badira beste era bateko salbuespenak ere. Eraikitzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean hobariak gehitu dituzte. Udal Gobernuak oposizioaren proposamenak ere jaso ditu, eta onartutakoen artean, EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek egindako bi proposamen daude: Batetik, denda txikienezko eraikitzen, instalazioen eta obren gaineko zerga %2,5etik %1,25era jaitea. Eta, bestetik, irekitzen diren komertzio berrientzako %50eko hobaria.

EHBilduk kontra bozkatu zuen, herritarrei tasak igotzea ez zaielako onargarria iruditzen. Zaborren bilketaren zergari ezarritako %3,43ko igoerarekin bereziki arduratuta azaldu da EHBildu. Hondakinen bilketaren kudeaketan "zerbitzu txarra" eman arren, tasak igotzea erabaki du Udal Gobernuak, eta hori "benetan kezkarria" dela uste dute.

Mila Pikazak irabazi du Txankakuaren 'Prezio Juxtua' lehiaketa

Mila Pikazak irabazi du Txankakua elkarteak antolatutako Prezio Juxtua lehiaketa. Produktu ezberdinez osaturiko erakusleihoa osatu zuen Txankakuak, eta haren prezio zehatza edo pasatu gabe gehien gerturatzea zen jokuaeren arrazoia. 2.458,58 euro zen prezio zehatza, eta Mila Pikaza izan da prezio horretara gehien gerturatu dena, 2.458 kopuruarekin. Rural Kutxako erakusleihoan zeuden produktu guztiak eraman ditu etxera, besteak beste, bizikleta bat, tableta, sakelakoa, kirol erlojua edota eguzkitako betaurrekoak.

Bono kanpaina

Txankakuak, bestalde, bono kanpaina jarri du martxan aurten ere, herriko merkataritza sustatzeko. 40 euroko bonoa erosita, 50 euroko erosketa egin ahal izango da elkartearen dendetan. Bonoa 25 euroko bi zatitan banatuta egongo da; hortaz, gutxienez 25 euroko erosketa egin behar da. Nahi izanez gero, 50 euroko bi bono elkartzeko aukera ere ba-



dago, eta horrela 100 euroko erosketa egin. Mila bono atera dituzte guztira, eta Kalebarren plazan ipini duten lokalean erosi ahal izango dira azaroaren 30era arte, edo bonuak agortzen diren arte.



Gazta dastaketa egingo dute gaur, Kultur Etxean, debalde

Elgoibarko Mausitxa gaztandegiko ardi gazta eta Mallabiko Axelekuk eginiko behi gazta dastatzeko aukera izango da gaur, Elgoibarko Kultur Etxean, debalde. Gazta dastaketa Mutrikuko Sagarminia baserriko txakolinarekin lagunduko dute. Gaztagileek gainera, gaztagintzari buruzko azalpenak emango dituzte. 19:00etan hasiko da jardunaldia.

'Barren.eus' atarian emango ditugu hauteskundeetako emaitzak domekan

Espainiako Kongresurako hauteskundeak egingo dira domekan, eta Elgoibarko eta Mendaroko herritarrak ere bozkatzera deituta daude. Ohiko lekuetan eman beharko dute botoa, 9:00etatik 20:00etara bitartean. Botoa emateko ezinbestekoa izango da NAN edo pasaportearekin identifikatzea. Hauteslekuak itxi eta boto kontatzea amaitu bezain laster *barren.eus* atarian emango ditugu Elgoibarko eta Mendaroko emaitzak.

155 lagunek hartu dute parte preso adinduak etxeratzeko eskatzeko bizikleta martxan



Elgoibar eta Oñati lotu zituzten 155 herritarrek bizikletaz, preso adinduak etxeratzeko eskatzeko bizikleta martxan. Sarek antolatu zuen ekimena, Sebas Etxaniz Elgoibarko preso eta Joseba Arregi Oñatikoa aske uzteko eskatzeko. Etxanizek 76 urte ditu eta Arregik 73. 70 urtetik gorako presoek baldintzapeko askatasuna aitortu arren, bi hauen kasuan hori ez dela betetzen salatu du Sarek.

'Euskara ala ezkara ingurune digitalean?' zikloko kronikak eta bideoak sarean dira

Euskara ala ezkara ingurune digitalean? zikloan parte hartu zuten adituen hitzaldien kronikak eta bideoak jaso eta *euskaraalaezkara.eus* webgunean eman dituzte Elgoibarko Izarrak eta Udalak. Hitzaldiez gain, Jokin Trikitixaren musika-saioaren eta Ines Osinaga eta Lorea Argarete emandako *Mauriziak ez dau inor hil* kontzertuaren bideoa ere eskegi dute webgunean. Elgoibarko Izarrak, Udalak eta puntuEUS fundazioak antolatu zuten zikloa, DanobatGroupen eta IMHren laguntzarekin. *Barren.eus* atarian ere ikus daitezke bideoak.



Janari bilketarako boluntarioak behar dira

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa egingo du Elgoibarren, azaroaren 22an eta 23an, Elgoibarko Gurutze Gorriarekin eta Udalarekin elkarlanean, eta janaria batzeko boluntarioak behar dituztela jakinarazi dute. 9:00etatik 21:30era egingo dute bilketa, eta txandak egiteko ordutegiak eta saltokiak boluntario kopuruaren arabera antolatuko dituzte. Janari bilketan boluntario izan nahi dutenek hainbat modu dute izena emateko: *arreta@elgoibar.eus* e-postara idatzita, 943 741 050 telefonora hots eginda edota Herritarren Arreta Zerbitzuan-HAZ (Santa Ana 2, behe). Iazko kanpainan 9.046 kilo janari eta bonotan 5.544 euro bildu zituzten.

Klima aldaketaren kontrako mozioa onartu du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udaltzatza osatzen duten hiru alderdi politikoen (EAJ, EH Bildu eta PSOE) aho batez onartu zuten klima aldaketaren aurkako mozioa. Mendaroko Udalak larrialdi klimatiko egoeratzat jo du egungoa, eta Jaurlaritzari eskatu dio Legebiltzarrean tramitatzeko ari diren lege proiektua Eudelekin koordinatu dezala. Era berean, lege proiektu horretan izendatzen den larrialdi egoerari aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko plangintzak eta politikak abiatu ditzala eskatu dio. Horrez gain, klima aldaketaren eraginez sortuko diren ondorioetara egokitzeko neurriak hartzeko premia ikusten du Mendaroko Udalak, eta Jaurlaritzari eskatzen dio Udalaren eta gainerako erakundeekin koordinatuta hartzeko neurri horiek. Mendaroko Udalak, bestalde, klima aldaketari aurre egiteko politika eraginkorrek garatzeko konpromiso "irmoa" hartu du, eta horren harira, Jasangarritasun Energetikoaren Legea herrira egokitzeko lana egingo du datozen zortzi hilabeteetan. Herritar eta eragileekin elkarlanean egingo du lan Udalak, eta plangintza aurrera eramateko beharrezkoak diren medio tekniko eta ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartu du. Mendaroko Udalak bando bidez emango die herritarrei mozio honen berri.



ANTON URREISTI

MARGOLARIA



“Adituen kritikak entzunez asko hobetu dut margotzeko teknika”

Anton Urreisti (Mutriku, 1960) 37 urte zituela hasi zen bere benetako pasioari bide ematen. Estudioan margotzen zuen lehenik, eta gerora, kalera irten zen. Margo lehiaketetan parte hartzen hasi zen, eta ez hori bakarrik, sariak irabazten ere bai. Euskal Herriko eta Espainiako lehiaketetan aritzen da, eta dagoeneko, 250 sari baino gehiago eskuratu ditu. Jaiotzez mutrikuarra da, baina Mendaron bizi da aspalditik, eta bere sariei esker, ezaguna egin du herriaren izena. Gaur zortzi, azken pare bat urteetan egindako lanak jarriko ditu ikusgai Elgoibarko Kultur Etxean, baina oraino ez da bakarrik etorriko: Juan Jesus Villaverde eskultorearen obrak eta Carmen Riveraren margolanek osatuko dute erakusketa.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Kaleko margo lehiaketetan han eta hemen ageri da zure izena irabazleen artean. Tamaina hartu diezula dirudi.

Bai, gustura aritzen naiz kalean margotzen; gozatu egiten dut. Azken urteetan Espainian zehar hartzen dut parte, bereziki. Euskal Herrian bi lehiaketa gustatzen zaizkit, batez ere, Arantzazukoa eta Zumaiakoa. Mutriku eta Mendaron ere hartzen dut parte, baina bestela kanpoan ibiltzen naiz azkenaldian. Euskal Herrikoen artean Arantzazukoa da bereziena, eta orain dela hiru urte neuk irabazi nuen. Aurten bigarren saria eman zidaten, baina kritika oso onak jaso nituen. Fatxadako ama birjinen irudia aukuratu nuen, eta fatxadako harriak koadrotik irteten direla dirudi. Hiru dimentsiotan eginiko irudia ematen duela esan zidaten. 17 urtetan 250 sari baino gehiago eskuratu ditut Euskal Herrian eta hemendik kanpora. Mendaroko herriaren izena ezaguna da dagoeneko Espainiako kaleko margo lehiaketa askotan.

◆ Zein desberdintasun dago Euskal Herriko eta Espainiako lehiaketen artean?

Ez daukate zerikusirik, eta nik oso modu desberdinean mar-

gotzen dut. Euskal Herrian modernistagoak gara, eta inpresionismoan egindako koadroak gehiago estimatzen dira. Espainian, aldiz, errealismoa gustatzen zaie gehiago. Nik bi moduetan margotzeko ahalmena daukat, eta kritikoak ere konturatu dira hortaz. Askotan esan izan didate mirestekoa dela gaitasun hori. Inpresionismoa, abstrakzioa eta modernismoa lantzen ditut Euskal Herrian, eta kanpoan lan errealistak egiten ditut. Esango nuke gehiago gustatzen zaidala abstrakzioa lantzea, koadroan barneratzen naizelako. Palentzian, adibidez, sari bat irabazi nuen hango baxerri moduko baten koadroarekin. Oso errealista zen, eta gustura geratu nintzen emaitzarekin, baina horren detaile errealak margotzen ez dut hainbeste disfrutatzen. Dena dela, hemendik kanpora maila altuagoa dagoela iruditzen zait, eta beste margolariak ikusten asko ikasten dut. Beti ikasten dut zer bait berria, etengabe ari naiz ikasten eta oraindik asko daukat ikasteko.

◆ Kalean ala estudioan marraztea duzu nahiago?

Estudioan ere margotzen dut, eta ondo moldatzen naiz. Estudioan denbora gehiago daukazu margolanak egiteko eta nahi-

beste aldiz egin ditzakezu aldaketak. Kanean aldiz, denbora mugatua da, eta lanak freskoagoak irteten dira. Estudioan pintura lehorra esaten zaiona erabiltzen dut, eta gero koadro horietako batzuk bidaltzen ditut lehiaketetara, eta iaiz, laugarren saria eskuratu nuen Madrilgo lehiaketa batean. Sari garrantzitsua izan zen. Oleoan eta akrilikoan ere margotzen dut.

◆ Noiz eta nola hasi zinen margotzen?

Umetan hasi nintzen margotzen, eta aitak bidali ninduen kalera. Aitak nahi zuen jendeak ikustea zer margotzen nuen eta berak animatu ninduen kanean margotzera. Gerora, erakusketa bat egin nuen. Aitor Etxeberria Mendaroko margolariak animatu ninduen kaleko margo lehiaketetan parte hartzera, eta horrela hasi nintzen. Mendaron hartu nuen parte lehenengo aldiz, eta neuk irabazi nuen. Hura izan zen guzti honen hasiera. Nik ez daukat eskolarik, eta askok sinistuko ez didaten arren, nire kabuz ikasi dut dena. Margolari on asko ezagutzen ditut, eta askotan galdetzen diet nire lanei buruz, zer hobetu dezakedan jakiteko, eta egia esan, adituen kritikak entzunez asko hobetu dut margotzeko teknika. Horri esker asko eboluzionatu dut, eta adituak ere konturatu dira horretaz. Esaten didate kanean gabiltzan margolarien artean gehien eboluzionatu duena neu naizela. Orain dela hiru urte Arantzazuko lehiaketa irabazi nuenean kritiko batek esan zidan oso lan onak egiten ditudala, eta nire koadroak Alemanian edo Estatu Batuetako galeriaren batean erakusteko modukoak zirela. Gustatuko litzaidake, baina ez da erraza.

◆ Nola egiten dituzu koadroak, buruz ala erretratuetatik kopiatuta?

Modu desberdinak erabiltzen ditut. Batzuetan buruan daukadana margotzen dut, beste batzuetan erretraturen bat kopiatzen dut, eta kaleko lehiaketetan modu naturalean margotzen dut ikusten dudana. Txokoren bat aukeratzen dut, eta nire barrutik ikusten dudana bezala margotzen dut. Erretratuetatik kopiatzearen formula margolari askok erabiltzen dugu, detaileak egiteko erraztasunak ematen dituelako. Nik, esaterako, New Yorkeko koadro bat margotu dut lagun batek bidali zidan argazki batetik.

◆ Zein kolore erabiltzen dituzu koadroetan?

Koloreen artean beltza gustatzen zait gehien, baina siena eta okreak ere asko erabiltzen ditut. Gaztela aldeko paisaiak tonalitate hori dauka eta han gustura margotzen dut. Euskal Herrian gehiago erabiltzen dut beltza; betza bere tonalitate guzietan. Kolore epelak erabiltzen Espainian, eta Euskal Herrian, aldiz, kolore hotzak.

◆ Zein berezitasun dute zure lanek?

Nire lanen berezitasuna mantxak dira. Berez hasi zitzaizkidan irteten, eta Ignacio Treku Debako lagunak esan zidan hori betirako kontserbatzeko. Mendaron parte hartu nuen estreinako margo lehiaketan San Antonio ermita margotu nuen, eta han irten zitzaizkidan mantxa horiek. Lehiaketa irabazi nuen eta Aitor Etxeberriak berak eman zidan saria. Orduetik mantxa horiek nire sinadura edo ikur bihurtu dira.



◆ Zer ematen dizu pinturak?

Pintura bizitza da niretzat. Margotzen hasten naizen momentuan koadroarekin konektatzen naiz, eta bertan islatzen ditut nire emozio guztiak. Koadrora eta margotzen ari naizen leku horretara trasladatzen naiz, eta barru-barrutik irteten zaidana margotzen dut; sentitzen dudana.

◆ Zer ekarriko duzu Elgoibarko erakusketara?

Aurtengo urtea ez da ona izan niretzat eta ez ditut lan asko egin, beraz, azken bi-hiru urteetan margotutako hamabost bat lan ekarriko ditut. Zazpi urte pasatu dira Elgoibarren azken erakusketa egin nuenetik, eta ordutik izan dudana eboluzioa igarriko da. Nirekin batera beste bi artista egongo dira euren lanak erakusten: Juan Jesus Villaverde eskultorea eta Carmen Rivera margolaria. Espainian zehar ere egin izan ditugu erakusketak elkarrekin, eta orain bereiek etorriko dira Elgoibarrera. Erakusketa ederra izango da.

JESUS VILLAVERDE ETA CARMEN RIVERA

□ Jesus Villaverde Avilako eskulturgilea da. Burdina lantzen du, batez ere, birziklatutako burdina. Burdinezko piezak bata bestearekin elkartu eta arte-lan bihurtzen ditu. Erakusketa asko egiten ditu Espainian, eta iaiz Gernikan ere egon zen. Bere lanek ezagunenak ekarriko ditu Elgoibarrera.



□ Carmen Rivera Palentziako margolaria da. Akrilikoan margotzen du batez ere. Errealismoa eta inpresionismoaren teknikak erabiltzen ditu batez ere, espatula eta pintzelak erabiliz. Argiekin asko jolasten du bere lanetan. Margo lehiaketetan epaimahaikide ere izaten da tarteka.

▶ IÑAKI GOITIA LUCAS

IDAZLEA ETA MENDAROKO LIBURUZAINA

Urtebete ez da Iñaki Goitia Lucas (Oñati, 1981) Mendaroko liburutegian liburuzain hasi zela, baina ezaguna du ofizioa. Irakurzale amorratu da, hamaika liburutegitan aritu izan da lanean, eta gaur ere, Aretxabaletako liburutegian egiten dituen orduekin osatzen du egun osoko lanaldia. Idazten ematen ditu egunak lagatzen dizkion gainerrako orduetako asko. Madrilgo Idazleen Eskolak eta Ser irrati kateak antolatutako *Relatos en Cadena* lehiaketan saritu dute bere azkeneko lanetako bat, 'Escabechina' mikroerrelatoa, eta boto bakar bategatik ez dute hilabeteko onena izendatu. Literaturarako eta sormenerako talentua sustatzeko sortu zuten lehiaketa duela hamahiru urte, eta bigarrenkoz izan da Goitia hilabeteko final batean.

- AINARA ARGOITIA -



“Idazten oso intuitiboa naiz, eta askotan, bukaera garbi izan gabe hasten naiz”

♦ **Hilaren 28an egin zuten *Relatos en Cadena* lehiaketako urriko finala, hilabeteko mikroerrelato onena izendatzeko. Hantxe zen zure lan bat, bigarrenkoz.**

Bai, maiatzeko egoera bera errepikatu zen, baina oraingoan ere, kale. Astelehenetik ostegunera egiten dute lehiaketa, asteko onena aukeratzeko, eta maiatzeko hartan, 27. asteko onena aukeratu zuten nirea, *El imbécil*, eta deitu ninduten hilabeteko onena aukeratzeko finalerako [1.098 lan aurkeztu zituzten guztira]. Eta izugarri poztu nintzen, saiatu eta saiatu ari nintzelako, baina emaitzarik gabe. Adibidez, badago beste lehiaketa bat, ospe handienekoa izango dena ziurrenik, la Microbibliotecarena, eta han, lau bat aldiz izan naiz finalista, baina Ser irrati katekoan, egina-halak egin arren, ez zen ezer iristen. Baina halako batean sailkatu nintzen hilabeteko finalerako eta sekulako poza hartu nuen. Ez nuen irabazi, baina epaimahai teknikoak nire alde egin zuen, eta publikoak ere bai, alde handiz gainera, eta horrek bete egin ninduen. [Idazle nabarmenduen botoak, epaimahai teknikoarena eta publikoarena hartzen dira kontuan hilabeteko onena apartatzeko]. Eta orain hamabost bat egun, kontu bera errepikatu zen. Hilabeteko finalerako sailkatu nintzen *Escabechina* lanarekin eta banuen aurreko arantza kentzeko esperantza, baina berriro ere final handitik kanpora gelditu nintzen, boto bakarragatik. Pena izan da, lehenengoan baino handiagoa, baina zer egingo diogu ba! la hirugarren aukerarik baden! Hori bai, lerro hauek baliatu nahiko nituzke nire alde botoa eman duten guztiei eskerrak emateko.

♦ **Liburutegian ezagutu zaitugu Mendaron, baina musikan ere egina duzu ibilbide bat.**

Bai, 2002an sortu genuen Malenkonia taldea eta hor jardun naiz batera jotzen, harik eta oraintsu taldea desegin dugun arte. Idazten ere urteak daramatzat, eta 25 bat liburu argitaratuak dauzkat beste egile batzuekin batera, lehiaketetan saritutako lanekin. Musika, literatura... kultur adierazpide guztiak gustatzen zaizkit oro har. Hori bai, sekula ez dut neure burua muskaritzat izan, baina bai, aldiz, idazletzat. Irudipena daukat askotan jendeak erreparo handia diola bere burua idazletzat aurkezteari, eta ez horrenbeste musikaria dela esateari, baina niri alderantzizkoa gertatzen zait.

♦ **Loari ordu asko lapurtu dizkiozula esana duzu, besteak beste Nietzcheren pentsamenduak irakurtzen.**

Bai, goizaldera arte egondakoa naiz irakurtzen. Begira, ikasketetan, zientzien adarretik jo nuen, oñatiarra izanda eta Ulma enpresa herrian izanda, inguruak berak ere horretara bideratzen ninduelako hein batean, baina laster konturatu nintzen ez zela hori nahi nuen bizimodua. Hala, Filosofia ikastea erabaki nuen, eta uste dut bizitzan hartu dudana erabaki onena izan zela. Aldi berean, liburutegiko laguntzaile izateko ikastaroa ere egin nuen UNEDen eta horrek lan mundurako atea zabaldu zidan. Oñatiko liburutegian egin nituen praktikak, eta gerora, Legazpi, Donostia, Arrasate, Aretxabaleta, Orio, Gernika eta Pasaiako liburutegietan jardun naiz lanean, besteak beste.

♦ **Umetatik idatzi al duzu?**

Esango nuke idazteko baino irakurtzeko zaletasun handiagoa izan nuela umetan. Eskolan agindutakoa ez beste edozer irakurtzen nuen gustura eta idazlanei ere gustura ekiten nien. Nerabe-



“Eskerrak eman nahi dizkiet Relatos en cadena lehiaketan nire alde egin duten guztiei”

zaroan, baina, laga nion idazteari eta irakurtzeari, banituelako beste kezka eta lehenasun batzuk, baina bolada baten ostean hasi nintzen berriro nire gauzak idazten, ez oso modu kontzientean. Idatzi ditut errelatoak, mikroerrelatoak, prentsarako artikulak, musika taldeentzako letrak eta saiakera bat ere bai. Orain, nobela bat daukat hasita. Kontua da hasi nintzela serio-antzean baina lanerako deitu nindutela eta astirik bilatu ezinda nabilela, nobelak beste dedikazio bat eskatzen duelako. Mikroerrelato bat idazteko ez da horrenbeste behar, baina nobela bat sortzeko behar duzu istorio bat eta behar dituzu pertsonaiak, nobelaren zutabe izango direnak. Baina, bai, badauzkat lan batzuk pilatuta, euskaraz zein erdaraz idatzitakoak, tartean mikroerrelato saritu batzuk ere bai, eta gustatuko litzaidake horiek argitara ematea, baina kosta egiten zait. Saltzaile txarra naiz. Lotsa-halako bat ematen dit, eta nagji handia. Nik beti esan izan dut idaztera mugatu nahiko nukeela. Malenkonia taldearekin diskoak sinatzera joan behar genuenean ere ez nuen gozatzeko. Bukatzeko desiatzen egoten nintzen hasi ordurako. Ez naiz plaza-gizona. Egia da egina eginez lortzen dela lotsa horiek gaintitzea edo gutxienez apaltzea, baina niri sortzea gustatzen zait. Musikan ere, kontzertuak ematea ondo dago, baina niri kantak sortzea gustatzen zait; sortzea, eta kostata egindako lan hori disko batean jasota ikustea. Sekula ez dut nik kantuak jendeaurrean erakusteko presarik izan.

◆ **Nobela idaztearen arteaz jardun zara, baina ehun berbatan istorio bat kontatzea zer da, artea ez bada?**

Nobela idazteari errespetu handia diot. Dokumentazio-lan handia eskatzen duela iruditzen zait, eta abiatzerako, oso ondo egituratuta izan behar direla istorioa bera eta pertsonaiak. Arkitektura oso bat dago hor, eta horri esaten diot nik artea. Esfortzu handia eskatzen du nobela idazteak, eta batez ere, denbora luzea. Generoaren ezaugarriak kontuan hartuta, baina, beharbada, zailagoa da mikroerrelatoa idaztea. Jarri ezkerre izan behar dituen ezaugarri guztiak betetzera esango nuke konplexuagoa

dela mikroerrelato on bat idaztea, baina ni oso intuitiboa naiz, eta gauza horietan lar pentsatu gabe idazten dut. Askotan bukaera argi izan gabe ere hasten naiz idazten eta era horretan ez da samurra nobela idaztea.

◆ **Zeintzuk ezaugarri izan behar ditu derrigor mikroerrelato batek?**

Dekalogo asko daude mikroerrelatoak idazteko, baina esango nuke hizkuntzaren ekonomia zaintzea eta idatziz esaten ez den hori ondo borobiltzea ezinbestekoak direla. Esan nahi den hori esateko berba justuak erabili behar dira, soberako guztiak penalizatu egiten direlako, eta esaten dena baino garrantzitsuagoa izaten da sarri iradoki nahi dena. Eta istorioak hasiera, korapiloa eta bukaera izan behar ditu. Gero, umorea eta literatura unibertsalari egindako erreferentziak ere dezente erabiltzen dira. Errelato motza ez da nobela labur bat, eta mikroerrelatoa ez da errelato labur bat. Latinoamerikan tradizio handia dauka genero honek, eta hemen ere indarra hartzen ari da, hein batean sare sozialen eraginez. Genero zaila da.

◆ **Jasotakoan artean baduzu bereziki estimatzen duzun saririk?**

Aurrenekoa eta 2012an Murtzian jaso nuen beste bat aipatuko nitzuke, eta bereziki bigarrena. Beharbada izan da nire lan motzik onena, edo neure gustukuena behintzat, eta saria bera garai zail batean etorri zitzaidan. Apenas egin nuen lanik urte hartan eta gogoan daukat saria jasotzera Murtziaraino joan nintzela eta izugarri ondo zaindu nindutela. Sari entzutesuenen artean Ser irrati kateko hauek eta Racio Nacional de Españako *Wonderland* lehiaketakoak aipatuko nitzuke. Hamar bat aldiz izan nintzen finalista *Wonderlanden*, eta birritan irabazi nuen.

◆ **Mendaron liburuzain zara. Zer topatu duzu hemen?**

Azterketa egin nuenean gustatu zitzaidan liburutegia, baina berehala konturatu nintzen espazioak ez zeudela bereiztuta eta jabetu nintzen haurren liburutegi bat izango zela. Eta denborarekin, konturatu naiz aurreikusten nuena baino maila handiagoan dela umeen liburutegia. Zarata handia sortzen da hemen, eta hori egiten zait jasangaitzera, zaila egiten zaidalako kontrolatzea, baina irudipena daukat herritarrek onartuta dutela edo normaltasunaren barruan ikusten dutela. Ume txikiek sortzen duten zarata eramanarrezagoa egiten zait, baina handiagoena ezin dut eraman, iruditzen zaidalako jakin beharko luketela liburutegian isiltasuna ezinbestekoa dela.

◆ **Aukerarik bazenu, zer aldatuko zenuke?**

Espazioak banatuko nitzuke. Helduentzat den parte hau itxi egingo nuke, eta umeen gunea bi zatitan bereiztu, nahiz badakidan beharbada espazio txikian itxitura asko sortzea litzatekeela. Baina gutxien-gutxienean helduen gela itxi eta insonorizatu egingo nuke. Eta behin eskatzen hasita, liburutegia ordu gehiagoz zabaltzea eskatuko nuke, herriari beste zerbitzu bat emateko. Iruditzen zait ordutegi zabalagoarekin beste jende bat ere etorriko litzatekeela.

Azaroaren 20a, Errigora saskiak eskatzeko azken eguna



50€

Orburuak
Zainzuriak
Pikillo piperrak
Ardoa
Oliba-olio birjina estra
Potxak
Mahats-zukua
Zainzuri-krema
Teilak
Melokotia almibarrean
Kardua
Tomate frijitua
Pikillo mamia



60€

Orburuak
Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak
Ardoa
Olio-olio birjina estra
Potxak
Mahats-zukua
Arroza
Pasta
Barazki-menestra
Ozpin



70€

Orburuak
Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak
Ardoa (Kriantza)
Paxarana
Extra Brut
Polboroiak
Paxaran mantekatuak
Txokolatezko arroak
Pikillo piper marmelada

Udazkenarekin batera, badator berriro ere Errigora, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainaren bigarren edizioarekin. Urriaren 30ean hasi zuten kanpaina eta azaroaren 20an bukatuko dute, eta tarte horretan, Nafarroa hegoaldeko produktuz osatutako saskiak eskatzeko aukera izango da. Aurten, hiru saski izango dira aukeran: beltza (50 euro), berdea (60 euro) eta zuria (70 euro). Eskaerak on-line egin daitezke *Errigora.eus* webgunean sartuta. Eskaerak egitean, saskiak jasotzeko gune bat aukeratu behar da, eta gune bakoitzak saskiak jasotzeko egun eta ordutegi zehatzak izango ditu, eskaera egiterakoan ikusi ahal izango direnak. Elgoibarren, Ikastolaren eta AEK-ren bidez ere egin daitezke eskaerak. Ordainketa egiteko, berriz, bi modu daude: online, txartel bidez ordainketa aurretiaz eginda utzi ahal izateko, edota banaketa-gunean, eskura, saskiak jasotzeko egunean (kasurik gehienetan abenduaren bigarren astean izango da, baina e-mail bidez zehaztuko zaie eskatzaileei).


Nafarroako ekoizpena sustatzeko eta aldi berean Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzari bultzada emateko sortu zuten Errigora, eta auzolanak mantentzen du bizi. Ehunka lagun aritzen dira saskiak osatzen eta handik hona eta hara eramaten. Saskiak eskatzen dituztenak ere auzolan horren parte dira, nork bere alea jarrita, ekarpen handia egiten ari direlako Nafarroako ekoizleei eta euskalgintzari. 2013an egin zuten estrainezko

kanpaina, eta dagoeneko ia 1.000.000 euro bideratu ditu Errigora Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskarari hauspoa ematen ari diren proiektuetara. Vianako Erentzun, Lodosako Ibaialde eta Tuterako Argia ikastolek, AEK-k eta Sortzenek jaso dute orain artean diru hori. Eguneroko beharrei aurre egin ahal izateko eta arnasa lasaiago hartzeko balio izan die diru-ekarpen horrek ikastolei, zonaldeko euskaltegien egitura-gastuei aurre egin eta ikasleei matrikula ordaintzen laguntzen dien beka-sistemari eusteko AEKri, eta Sortzenek, berriz, Nafarroako zonalde horretan matrikulazio-kanpainak egiteko erabili du dirua. Hau da, beldurrak eta aurreiritziak uxatzeko kanpainak egiteko, sare publikoan D ereduko taldeak mantendu eta berriak sor daitezten. Aurten, baina, badago berritasunik atal honetan. Aipatutako horiez gain, Agerraldia deitu duten ekimen berrirako ere gordeko du diru-ekarpenaren zati bat Errigora. *Ager vasconumean* (Nafarroako erdialdean eta hegoaldean) euskara bultzatzeko eta laguntzeko beste urrats bat eman nahi dute hala egitasmo honen sustatzaileek: "Bide praktikoa eta eraginkorra egin nahi dugu, bertako euskaldunak eta euskaltzaleak protagonista eta sustatzaile izanen dituen, saretzean eta elkarlanean oinarritua, eta emaitza gisa jarduera eta ekintza zehatzak ekarriko dituen, euskararen ezagutza zabaltzeko, erabilera handitzeko eta aldeko jarrerak indartzeko".

63 argazki aurkeztu dituzte Karakate elkarteak antolatutako argazki lehiaketara, eta Iñigo San Vicentek irabazi du

Perretxiko jardunaldien barruan argazki lehiaketa antolatu du aurtengo Karakate Mikologia Elkarteak. Urriaren 27an perretxiko erakusketa egin zuten sotoan, eta bertaratu ziren herritarrek eman zituzten argazkientzako botoak. Perretxikoak protagonista zituzten 63 argazkiren artean bozkatu behar izan zuten, eta horien artean, Iñigo San Vicentek ateratako argazkiak jaso zituen boto gehien. Jose Ramon Cabrera izan da bigarren sailkatua, eta Angel Vicario hirugarrena. Antolatzaileek esan dute "ixundituta" geratu direla erretratuen kalitatearekin, eta eskerrak eman dizkiete parte hartu dutenei eta baita botoak eman dituzten herritarrei ere.

Perretxiko erakusketan, bestalde, 111 espezie desberdinetako perretxikoak jarri zituzten ikusgai. Sailkapena egiteko Aranzadi elkarteko adituen laguntza izan zuten.



Arg.: Iñigo San Vicente

'Emakumeak industrian' argazki-erakusketa zabalduko dute azaroaren 16an Erreminta Makinaren Museoa

Emakumeak industrian jokatu duen papera gizarteratzeko helburuarekin *Emakumeak industrian* izeneko argazki-erakusketa antolatu du Erreminta Makinaren Museoa, Kutxa Fundazioak babestuta. Azaroaren 16an zabalduko dute, eta egun horretan bertan bi bisita gidatu egingo dituzte Nerea Alustiza historialariarekin. Euskarazkoa 11:00etan izango da eta 12:30ean gaztelerazkoa. Ordubetekoak izango dira bi saioak. Gehienez 20 laguntzako lekua egongo da, eta arduradunek eskatu dute aurrez izena emateko, museoa@museoa.eus helbidean. Bisitak doan dira.

20 bat kinto-talde batu ziren Kintaden Egunean



Arg.: Aitor

Urriaren 26an egin zuten Kintaden Eguna bigarren urtez, eta aurtengoan 20 bat kinto-talde batu ziren. Adin desberdinetako kintoak elkartu ziren, 19 urtetik hasita 50etik gorakoak arte. 13:30ean batu ziren guztiak Kalegoen plazan taldeko argazkia ateratzeko, eta gero, talde bakoitzak bazkaria egin zuen. Gauean K.O Etiliko taldeak kontzertua eman zuen Maalako parkean.

30. urteurrena inoiz baino indartsuago ospatuko du Sanlok

Aurrez egon ziren eskubaloi taldeak, bere partidak Aita Agirre plazan jokatzen zituen Pelousse, esaterako, baina 1989an sortu zuten Elgoibarko lehen eskubaloi taldea. C.D. Elgoibar futbol taldearen barruan sortu zuten, -sekzio bat zen, Manuel Esnaola Muxi presidente zela. Horregatik du Sanlok kamiseta zuri-gorria. Ales Arrieta izan zen lehen talde hura sortzeko sustatzaile handienetako bat, eta lehen presidentea. Arrietak lehen mailan jokatu zuen Eibarko Arraten, eta beste hainbat jokalarri elgoibartarrekin batera, Migel Angel Arozena, Patxi Aranberri... sortu zuen eskubaloi taldea. Ramon Mugica izan zen Sanloren aurrekaria zen talde hartako lehen entrenatzailea, Josean Hidalgoekin batera. Handik hamar urtera, 1999. urtean, ordura arteko lotura eten eta futbolak eta eskubaloiak bakoitzak bere bidea jarraitu zuten Elgoibarren. Halaxe sortu zen Sanlo Eskubaloi Kirol Taldea. Denboraldi-aurreko entrenamenduetan Sallobentera egiten zituzten korrikaldiengatik jarri zioten Sanlo izena. Denboraldi honetan 30. urteurrena ospatuko du Sanlok. Nola eta noiz ospatu guztiz erabaki gabe dute oraindik, baina jai egun handi bat antolatzeko asmoa dutela aurreratu du Aitor Urain Sanloko presidentek. "Momentuz urteurren ospakizunetarako logoa sortu dugu, eta ospakizun ekitaldiei forma ematen joan ahala emango dugu horien berri", esan du.

20 talde eta 340 jokalarri

340 eskubaloi jokalarri inguru dabilta Sanlon 2019-2020 denboraldian. 60 neska-mutil dabilta Eskubaloi Eskolan, eta lehiaketetan, gainerako 280ak. Infantil mailatik (12 urtetik aurrera) gora hogeitau talde ditu Sanlok, erdiak emakumeenak. Lau talde lehiatuko dira senior kategorian: Lauko (Euskal Liga, emakumezkoak), Alcorta Forging Group (1. Nazional Maila, gizonezkoak) eta Gipuzkoako 1. Mailan diharduten gizonezkoen



Arg.: Argazki Soarte

bi talde: Salento Gelati eta Gaurve. Aitor Urainek jakinarazi duenez, mailari eustea izango da gizonezkoen taldeen helburu nagusia. "Taldea nagusiak, Alcortak, gogor borrokatu beharko du mailari eusteko, juxtu xamar hasi baitute denboraldia, besteak beste, beste talde batzuetara joan diren jokalarri gazteak galdu dituelako". Oso bestelakoa da Lauko taldearen egoera. "Senior emakumeen taldeak maila igoera lortzeko aukera handiak dauzkala uste dugu, bai zuzendaritzak, entrenatzaileek eta

Emakumeentzako xake txapelketa antolatuta du Zubi Ondo xake taldeak

Createch Medical Emakumeen I. Xake Txapelketa antolatuta du Zubi Ondo Elgoibarko xake taldeak, Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren babesarekin, besteak beste. Abenduaren 8an jokatuko da Aita Agirre Kulturgunean, 10:30ean hasita. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, iparraldeko zirkuiturako puntuagarria izango da txapelketa. Doakoa da izena ematea eta elgoibarchess@gmail.com helbide elektronikora idatzita edo 637 737 113 (Mikel) telefono zenbakira deituta eman daiteke izena. Elgoibarko xake taldeak txapelketa ugari antolatzen ditu urtean zehar, baina neska eta emakume gutxik parte hartzen dute horietan, eta emakumeentzako txapelketa hau antolatuta parte hartzera animatu nahi dituzte.





baita jokalariek ere, eta, erronka hori jarri diogu gure buruei. Talde ona daukagu, denboraldi ona egin zuten iaz eta aurten pauso bat aurrera emateko urtea da". Honenbestez, duela hiru denboraldi galdu zuen mailara, Zilarrezko Ohorezko Mailara, itzuli nahi du Laukok. Liga txapelduna zuzenean igoko da eta bigarren sailkatuak sailkatze faseak gainditu beharko ditu igotzeko, inguruko taldeen aurka lehenik eta Espainiako estatuko taldeen aurkako playoffetan gero. Une honetan,

sailkapeneko bigarren postuan daude elgoibartarrak. Azken urteetan moduan, horretarako aukerarik suertatzen bada, igotzeko faseak antolatzen jarraitzeko asmoa ere badauka Sanlok. "Gure taldeei lorpen handiak zaleen aurrean eskuratzeko aukera emateaz gainera, eskubaloirik onena zaleei gerturatzeko izan da beti gure asmoa, eta bide horretatik jarraituko dugu lanean", adierazi du Urainek. Sanlok 130.000 euroko aurrekontua izango du denboraldi honetarako.

Karakateko Igoera antolatzeko boluntarioak behar ditu Morkaikok

Azaroaren 16an jokatu da aurtengo Karakateko Igoera mendi lasterketa. Morkaiko mendi taldeak jakinarazi dute boluntarioak behar dituztela lasterketa antolatu ahal izateko. Irteeratik, Kalegoen plazatik, Agerre baserri parera arteko bidean dauden bidegurutzeak zaintzeko prest dauden lagunak behar dituzte bereziki, eta baita antolakuntzako beste zenbait lan egiteko prest dauden boluntarioak ere. "Makina bat herritarrek horren gogokoa duten proba era egokian antolatu ahal izateko jende beharrean gaude", esan dute Morkaikoko kideek. Laguntzeko prest daudenean morkaiko@morkaiko.eus helbidera bidali behar dituzte euren datuak: izen-abizenak eta telefono zenbakia. Hala egiten dutenekin eurek jarriko dira gero harrremanetan.





Arg.: Fortuna K.E.

Juan Mugertza, Behobia Donostiako aurreneko irabazlea

Domekan jokatuko duten Behobia Donostia lasterketak 100 urte bete ditu aurten, 1919ko martxoaren 30ean jokatuta zutelako estreinakoz. Gaur egun sona handia duen lasterketak lotura berezia du Elgoibarrekin, Juan Mugertza Sasieta (1900-1937) antxitxikaria izan zelako lehen irabazlea. Elgoibarko korrikalari handiak 1:17:50 denboran osatu zituen hogei kilometroak. Antxon Iturrizak Fortuna Kirol Elkartearen Mendeurreneko liburuan dioenez, kirol eta antolakuntza "erronka" izan zen lehendabiziko Behobia-Donostia antolatzea. Izan ere, 1919an Gipuzkoan lasterketa egutegi zabala zegoen arren, 5 eta 10 kilometroko lasterketetan lehiatzen ziren sasoiko saltakariak, *Cross Country* moduan ezagunak ziren probetan. Lasterketok gertakari herrikoiak ziren, korrikalariak tranbietan eramaten zituzten, musikarekin harrera egiten zieten eta txaloka gurtzen zituzten ehunka lagunek bide ertzetatik. Ordura arteko mugak gainditzen zituela-eta, ezusteko handia izan zen Fortuna elkarteak hogei kilometro luze zituen lasterketa antolatzea. Atletak ez zeuden ohituta halako distantzia luzeetara, eta antolatzailerentzat eta ikusleentzat ere berritasun handia zen. Horrenbestekoa zen berritasuna, garaiko egunkariak ikusleentzako eta korrikalariarentzako argibideak argitaratu zituztela aurreko egunetan. Antxitxikariak Hendaiara joan ziren goizeko zortziak bost gutxitako 'Topoan'. Geltokian zain zuten irteerara eramango zituen ibilgailua. Faisanen uhartearen parean eta nazioarteko zubitik 300 metrora zegoen irteera. Hara joanak ziren kotxean antolatzailerak, ordezkariak eta kazetariak ere. Haiekin batera, txirrindulari, motorista, zaldizko eta ikusle multzo bat zain zegoen, "gogotsu" irteerako unea noiz ailegatuko. Antolatzailerak erabaki zuten korrikalari bakoitzarekin txirrindulari laguntzailerak bat joatea. Hainbat zeregin zituen laguntzailerak: korrikalariari babesa zein masajek ematea, hesgailuak jartzea, e.a. Era berean, atletei

gomendatu zieten oinetako lauak erabiltzeko edo bestela abarretak artile galtzerdiekin.

Hamalau saltakari amaitu zuten aurreneko Behobia-Donostia

Estreinako Behobian 22 korrikalari hartu zuten parte, denak gizonezkoak. Sasoiko ia proba guztietan nagusi ziren Juan Mugertza, Miguel Peña edo Modesto Makazaga zeuden izena emandakoen artean. Makazagak hartu zuen probaren burua lehen zatian, hala aholkatu baitzion bere laguntzailerak, Luis Adarragak. Kirolari aparta izateaz gainera, Adarraga Fortuna elkarte bakoitzeko sortzaileetarikoa bat zen. Gaintxurizketa gaina ere aurreneko postuan pasa zuen Makazagak, baina beherakoan aurrea hartu zion Juan Mugertzak. Jende andanaren artean aurrera eginez Victoria Eugenia parean jarritako helmugara ailegatu zen lehen korrikalaria. Juanito Mugertza zen. Zaleek bere izena oihu egiten zutelaren zeharkatu zuen helmugako marra. Makazagak egin zuen bigarren, Mugertzagandik 20 segundora. Hamalau antxitxikari amaitu zuten lehendabiziko Behobia-Donostia. Domekan jokatuko duten Behobia Donostiaren 55. ekitaldirako, 33.379 korrikalari daude izena emanda, tartean 90 elgoibartar eta 19 mendarogar. Elgoibarrek eman duen atletik handienetarikoa 1937an hil zuten, 36ko gerran frankistek Mungia bonbardatu zutenean. Bost aldiz jarraian izan zen 1.500 metroko Espainiako txapelkun, eta lautuan 5.000 metrokoan. 17 urterekin bi tituluak irabazi zituen 1917an Donostian jokatuta zuten estreinako Espainiako Atletismo Txapelketan. Anberesko Olinpiar Jokoetan ere parte hartu zuen 1920an, bi probetan, eta ez zuen lehen fasea igaro. 1921ean Afrikara bidali zuten soldadu, eta handik bueltan ez zuen aurreko mailarik eman. Mugertzaren omezez sortu zuten 1943an Juan Muguertza Nazioarteko Krosa.



Arg.: ABC

Mugertza krosa Atletismo Ondarea errekonozimenduarekin sarituko du IAAFek

Nazioarteko Atletismo Federazioko (IAAF) zenbait ordezkari eta 1996an Mugertza krosa irabazi zuen Paulo Guerra portugaldarra Elgoibarren izan ziren astelehenan, bisitan. Donostiako FICA Nazioarteko Atletismo Film Festivalera etorri dira, eta, bidaia aprobetxatuz, Mugertza krosa bertatik bertara ezagutzera etorri ziren. IAAFeko ordezkariak jakinarazi dutenez, historiako kros onenen artean dago Elgoibarkoa, eta hala dela adierazten duen The World Athletics Heritage Plaque izendapena jasoko du, atletismo ondare izateagatik. Atletismoaren historian kirol honen garapenean "apartak" izan diren ekarpenak saritzen ditu Nazioarteko Atletismo Federazioak izendapen horrekin. Bestekak beste, atletismo lasterketek, atletek eginiko balentriek, entrenatzaileek, atletismoari lotutako hiriek edo komunikabideek jaso dezakete errekonozimendu hau. Nazioarteko Atletismo Federazioaren Sail bat den IAAF Heritagek banatzen ditu sariok, eta erakundeko presidentea den Chris Turnerrek eman zien sariaren berri udaletxean egin zuten agerraldian. Kros antolatzaile gutxiak jaso dute erre-



konozimendu hau orain arte, hiruk bakarrik, eta Elgoibarko krosa eta Donostiakoa izan dira zerrendara batu dituzten azkenak. IAAFeko batzorde exekutiboko kidea den Anna Riccardik azaldu zuen aurki jasoko dutela Elgoibarko krosak atletismoari egin dion "ekarpen aparta" aitortzen duen plaka. Berri onak ezustean hartu zituen kroseko antolatzaileak, baina pozik jaso zuten krosarentzako errekonozimendu berri hau. "Ohore handia da sari hau jasotzea. Esan digutenez, hurrengo hilabetetan emango digu plaka, fabrikazioa martxan baitago. Mintxetan jarriko dugu".

Xabier Loiola bolaria bitik bi garaipen eskuratuta ailegatuko da Idotorbeko tiraldira



Euskal Herriko Hiru Txirlo bola-joku txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute zatuan Idotorbeko bolatokian (17:00), eta bolari elgoibartar bat ailegatuko da sailkapen nagusiko aurreneko postuan, Xabier Loiolak orain arte jokatu dituzten bi jaurtialdiak irabazi baititu, Lasturreko bolatokian lehen jardunaldian eta Iruzubietako bolatokian, Ziortza-Bolibaren, bigarrenean. Sailkapen nagusian 14 txirlorekin lehen postuan dago San Migel taldeko bolaria. Lander Odiaga dago bigarren postuan, 11 txirlo botata. Taldeka San Migel A taldea dago aurreneko postuan, 41 txirlorekin, Azkoitiako Floreaga taldeak baino 8 txirlo gehiago.

Everest Trail Race lasterketan hartuko du parte Ainhoa Lendinezek, Nepalen

Sei etapako mendi lasterketa da Everest Trail Race, 4.200 metroraingo garaieretan jokatzen dena, Nepaleko mendietan. "Erdi autosufizientzian egiten den proba da, jana eta kanpin dendak ez gainerako guztia guk eraman behar baitugu soinean. Eta, korrika baino gehiago oinez egiten da", azaldu du Lendinezek. Lasterketa gogorra izango dela dio, garaieragatik bereziki eta egokitze denbora gutxi dutelako. "Etapak ere ez dira labur-laburrak, eta eguneroko nekea nabaritu da. Baina ilusio handia daukat, etxean eta lagunek izugarri animatu naute, izugarri lagundu. Material mardoa prestatu, tramite mardoa egin, eta banao!. Parte hartzen bigarren euskalduna izango naizela uste dut, Zigor Iturrietaren ostean, eta han egon diren lagun apurrek esan didate ahaztezina dela esperientzia. Hango jana, hango tenpluak, eta antolatzaile, korrikalari eta nepaldarren arteko giroa aipatu dizkidate. Eta noski, hango paisaia. Pentsatu ere ezin dut egin". Helburu birekin doa motxilan: lasterketa amaitzea eta paisari bihotz-begiek argazki zoragarriak egin eta betiko haiek etxera ekartzeari. Datorren astelehenean hasiko da lasterketa eta etapen kronikak egiteko asmoa du Lendinezek. *Barren.euseko* komunitatean irakurri ahal izango dituzue..



Arg.: Karobipfoto

LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 612 422 256

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. ☎ 632 229 972

Orduka egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketara lanetan.

☎ 632 630 483

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile edo gabez egingo nuke lan. Garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko ere prest nago.

☎ 603 346 659

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 602 378 568

Erizain laguntzailea eskaintzen da adinekoak euren etxeetan zaintzeko. Arduratsua, esperientziaduna.

☎ 643 110 299

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Esperientzia daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Orduka. Gabez lan egiteko prest.

☎ 641 426 543

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 418 130

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 061 519

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketara lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 153 860

Garbitzaile lanak egingo nituzke, orduka. ☎ 637 102 725

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 631 103 865

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. ☎ 631 975 260

Eskaintzak

Bi asteburitik behin lan egiteko zerbitzaria behar da Mendaroko taberna baterako. ☎ 670 974 969

ETXEBIZITZAK.....

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 611 160 221

Deban, 2 logeletako pisua alokatzen da. Azaroaren 1etik ekainera arte. Egokia irakasle eta ikasleentzako.

☎ 669 339 529


OSPAKIZUNAK.....

1944ko kintoen ospakizuna azaroaren 23an. 13:00etan elkartuko dira San Bartolome parrokia aurrean, eta taldeko argazkia atera ondoren luntxa egingo dute. 14:30ean bazkalduko

dute, Sigma jatetxean. 50 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan: ES49 3035 0007 260071138198

BESTELAKOAK.....


Zilarrezko eskumuturrekoa galdu dut, Elgoibarko alde zaharrean. Eguzkilore baten irudia dauka. Balio sentimental handikoa da. ☎ 628 564 011




Dionisio Gonzalez Sanchez


2019ko azaroaren 1ean hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Asociación Española de Administradores de Finanzas y Contabilidad




ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA

San Bartolome, 2

Gure komunitateko etxe-jabe batek ate bat zabaldu du barne-patio batean eta ate horrek bere etxera ematen du. Modu horretan bere egin nahi du espazio hori. Presidenteari jakinarazi dio patio hori bere etxearen parte dela, hogeita hamar urtean baino gehiagoan erabili duelako eta inork ez diolako kargu hartu. Jakin nahiko nuke zer egin dezakegun.

Auzitegi gehienek iritzi ezin da gune komun bat jabetzan hartu denbora luzean erabili duelako. Kode Zibilari, egoera hauek arautzen dituen araudiari, egiten diote erreferentzia argumentu gehienek. Kode Zibilak dio ezin dela ezer jabetzan hartu beste inork kontrarik esan ez duelako. Argi utzi behar dugu kontu bat: ez gara elementu komun bati erabilera pribatua emateko eskubideaz ari. Hemen galdera beste bat da: hemen jakin nahi dena da patioa erabiltzen zuen bizilagun horrek bere ondasuntzat har dezakeen berez jabe baten guretzat den gune hori. Esan behar da elementu pribatiboen kasuan beste kontu bat dela, garaje-plaza bat, esate baterako, hartu daitezkeelako jabetzan. Eta berdin gertatzen da hasieran elementu komunak izanda ere jabetza pribatukoak bihurtu direnekin. Baina horiek salbuespenak dira. Adibide ohikoetan zer gertatzen den galdetzea beti dator ondo. Galdetzea, esaterako, terraza komun bat itxi daitezkeen terraza pribatu bat sortzeko. Terraza hori denbora luzean erabili izanak ez dio etxejabearen haren jabetza ematen. Korridoreetan hesiak, atek edo antzeko elementuak jarrita berea ez den espazio bat bere egin nahi duen bizilaguna salatzea komeni izaten da beti, eta salaketa jar dezake beste bizilagun batek edo komunitateak berak, prozedura arruntaren bidez.

AHOLKUA: Komeni da argitzea elementu komunak norberarentzat hartzea eta haien erabilera gehiegizkoa egitea bi gauza direla. Erabilera gehiegizkoa da, esate baterako, moto batentzako lekuan auto bat aparkatzea edo larrialdi-irteera batean bizikletak aparkatzea.



Argazkiak azaroaren 6rako, eguerdiko 12:00ak baino lehen ekarri behar dira
BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Lara**, zure lehen urte-txoa bete duzula! Muxuak, familiako guztien partez.



Zorionak, **bi-kote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean! Guk ere hala egingo dugu!



Zorionak, **Teresa Ines**, 4 urte bete dituzula. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Lumal!** Urte askoan! Dagoeneko 4 urte gure neska! Ondo pasa eta muxu handi-handi bat.




Zorionak, **Nuria**, zure urtebetetzean. Aitaitia, amama, Ane eta Sararen partez.



Zorionak, **Nuria**, zure 12. urtebetetzean! Muxu handi bat Leire, Iñaki eta amaren partez.



Zorionak, **Maren**, gaur 3 urteko bete dituzula. Muxu handi bat familiako eta bereziki, Unaxen partez.



Zorionak, **Unax**, zure zortzigarren urtebetetzean! Ondo pasa zure egunean.



Zorionak, **Elena**, zure 12. urtebetetzean. Jarraitu orain arte bezain alai. Muxu bat familiako denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

IKASGO ACADEMY **AURREMATRIKULA EPEA**
ZABALIK
2019-2020

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademlaelgoibar@gmail.com

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

667 261 248
(Leire)



LAGUNAK
colchonería textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,
kalitatezko ehunak
topatuko dituzu!

NEGUKO ETXeko ARROPEN BILDUMA BERRIA!

Franela, koralina eta kotoizko maindireak,
Sherpa ohe-estalkiak, umeentzako maindireak...

QUALITY eta KOL nordikoetan
%25eko deskontua lortuko duzu.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

RS-6 183/12



40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzuriptika.com

➤ Azaroko eskaintza:

Varilux lenteen bigarren pareta opari

➤ Azaroko zozketa:

Guess poltsa



DISFRUTA EL DOBLE
CON VARILUX SOLUTIONS
TU 2º PAR
DE LENTES PROGRESIVAS
INCLUIDO



8 BARIKUA

17:00 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

19:00 Gazta dastaketa irekia, eta debalde. Debemenek antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

11 ASTELEHENA

19:00 Isiltasun Eskolaren meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

12 MARTITZENA

16:30 Hitzaldia: 'Elikadura eta nutrizio osasungarria'. Pentsiodunen Biltokian. Antolatzaileak: Pentsiodunen Biltokia eta Kontsumobide eta Ongizate Saila.

14 EGUENA

21:00 Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldia: *Expect the unexpected: Mendi-eskia Kanadan*. Musika Eskolako auditoriumean.

15 BARIKUA

17:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

18:30 Erakusketa: Oleoak, akrilikoak eta burdinazko eskulturak: Anton Urreisti, Carmen Rivera eta Juan Jesus Villaverderen lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 29ra arte.

23:00 Kontzertua: Serious Bussines. Kultur Etxeko sotoan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Joker'

8 barikua: 21:30
9 zapatua: 19:00 / 22:15
10 domeka: 19:00
11 astelehena: 21:30

'Manou'

10 domeka: 16:30

En buenas manos'

(Ongarri zinekluba)
14 eguena: 21:30

Urrian hildakoak

. Dionisio Irisarri Gorostiza

62 urte, urriak 1

. Jose Iureta Gabilondo

88 urte, urriak 1

. Eduardo Iraegi Zamakola

93 urte, urriak 10

. Jose Mari Astorkia Ibarluzea

76 urte, urriak 10

. Miguel Jose Villanueva Sarasa

85 urte, urriak 12

. Rosario Arregi Arregi

87 urte, urriak 14

. Txomin Loiola Idiakez

74 urte, urriak 14

. Rebecca Tolentino Resurreccion

59 urte, urriak 15

. Juan Albarran Martinez

77 urte, urriak 22

. Antonia Aldalur Mendizabal

93 urte, urriak 28

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
8 BARIKUA	9 ZAPATUA	10 DOMEKA	11 ASTELEHENA	12 MARTITZENA	13 EGUAZTENA	14 EGUENA	15 BARIKUA
Egunez Arriola (Lehen Etxeberria)	Egunez *Fernandez *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean *Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola (Lehen Etxeberria)	Iluntzean Garitaonandia
* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar) 943 820 498	



Juan Albarran Martinez

2019ko urriaren 22an hil zen,
77 urte zituela.

Gurekin zaude, ibilaldietan, sentadilletan... eta hizketaldietan.



60+ taldea



II. URTEURRENA

Txomin Barrenetxea Urkiola

"Borrajen"

2017ko azaroaren 5ean hil zen, 78 urte zituela. II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroaren 9an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

**Aitxitxa Txomin,
zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean,
beti izango zara gure artean.**



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203


Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1978

Aste honetako erretratu zaharra Jose Luis Odriak ekarri du BARREnera. 1978ko uztailaren 15ean ateratako argazkia da, Julian Arrillaga Elgoibarko praktikantea izandakoari eginiko omenaldian, hain zuzen ere. 40 urtez jardun zuen Elgoibarren praktikante lanetan, eta herriko hainbat elkarte eskatu zioten Udalari omenaldia egiteko. Urte hartako ekainaren 30eko Osoko Bilkuran onartu zuen Udalak eskaera hura, eta uztailaren 15erako antolatu zuten omenaldia. Goizeko 10:00etan txistularien Biribilketa izan zen. Eguerdian meza nagusia egin zuten, eta parrokiako koroak hartu zuen parte bertan, eta segidan ohorezko aurrekua dantzatu zioten omenduari. 12:45ean pilota partida jokatu zuten Kalegoen plazako frontoian, eta partida horretan ateratakoa da erretratu hau. Txurruka eta Mendikutek, Beraza eta Odriaren kontra jokatu zuten. Ikastolan egin zuten ondoren herri bazkaria, eta omenduari oroigarri bat eman zioten. Bertsolariek, txistulariek eta beste artista talde batzuek girotu zuten bazkaria. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak: **Ezkerretik eskumara:** Anjel Jauregi (alkatea), Jose Mari Rivero (†) (arbitroa), Jose Luis Odria, Jesus Beraza, Julian Arrillaga (†) (omendua), Sabin Txurruka, Jose Mari Mendikute (†) eta Fermin Ruiz de Gauna (†).



Margarita Aizpurua Egaña

2019ko azaroaren 2an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko maite zaitugu.***

Etxekoak



Amaia Uranga Arriola

2019ko urriaren 26an hil zen, 44 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Bozkatu

Erabaki

BAIETZ!

ehbildu



LANGILEENTZAKO IKASTAROAK

%100 diruz lagunduak

70 ikastaro baino gehiago webgunean: **AUKERATU ZUREA!**



IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
SOLID EDGE II. Multzak	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	HEIDENHAIN: programazio parametrikoa	15	2020/02/24
SOLIDWORKS II. Multzak	30	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
NX gainazalak	30	2019/12/02	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1. maila	40	2019/11/12
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
AFME: Hutsegite moduen, haien eraginaren eta kritikotasunaren azterketa	16	2019/11/25	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko makina)	20	2019/12/02	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
SIEMENS: programazio parametrikoa	15	2019/12/02	Neumatika	24	2019/12/09
SIEMENS OPERATE: fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2020/01/07	Kalibrazio plana	16	2019/11/18
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2019/12/09	Perdoi geometrikoak gainazalekoak 2 Adituen G.P.S. ikuspegia	16	2019/12/02
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	PCDmis CAD++ 2. MAILA	25	2019/12/02
			Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/25
			Mantentze lanak eta makuren zehaztapenak makinan	16	2019/12/09

JOSTAILU AUKERAKETA:

zer hartu kontuan?



FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

0-8 URTE
KULTUR ETXEKO
SOTOAN

8-99 URTE
AITA AGIRRE KULTURGUNEKO
ERAKUSKETA GELAN

AZAROAREN 20AN, **EGUAZTENA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 21EAN, **EGUENA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 22AN, **BARIKUA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 23AN, **ZAPATUA**, 11:30ETIK 14:00ETARA



**10 URTETIK BEHERAKOEK
HELDU BATEKIN ETORRI BEHARKO DUTE**

**60 JOSTAILU
BAINO GEHIAGO**

**JOSTAILUEN
INGURUKO
AZALPENAK**

**JOSTAILUAK
PROBATZEKO
"JOLAS TXOKOA"**

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

